



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2021EKO URTARRILAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2021eko urtarrilaren 28an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Ricardo Arangoa eta Santos Etxegia.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Xabier Azpiroz, Olatz Dorai eta Julen Beunza.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Abenduaren 23an egindako batzarreko akta emailez helarazi zaie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

Alkateak ondoren transkribatzen diren ebazpenak irakurtzen ditu.

2020/101 alkate ebazpena baimenduz Sara Quesada Diaz Aizarotzko Errekaondo 2 kaleko B behea etxebizitzaren belardian dagoen lizarra botatzeko.

- 2020/102 alkate ebazpena onartuz Valeriano Aldaz Tellecheak egindako eskaera, udal honekin duen 2.913 euroko zorra 2 urteko epean ordaintzeko, 121.37 euro ordainduz hilabetero.

Honekin lotuta alkateak azaltzen du ez duela oraindik hitzarmena sinatu ez dagoelako konforme eskatzen zaion zorra kopuruarekin berak adierazten du preskribatua dagoela horren zatia eta hortaz Geserlokalera bideratu zion idazkariak han tramitatzeko.

Hau ikusita bildutako enbakiak izango de aste beteko epea ematea hitzarmena sinatzeko eta epe horretan ez badu sinatzen, zorra berriro Geserlokalera bideratuko da.

- 2020/103 alkate ebazpena onartuz Nasel enpresak abenduaren 17an aurkeztutako aurrekontua Jaunsaratsko Oihanzabal eskolan alarma jartzeko , 1.254 eurokoa (BEZ KANPO).

- 2020/104 alkate ebazpena onartuz Pedro Urriza Huartek egindako proposamena elurkertzeko lanak egiteagatik, hilabetero 300 euro kobratzeko, lan honek eskatzen duen prestutasunagatik. Proposamen hau ebazpena sinatu eta hiru hilabeteko iraungitzea izanen du eta hortaz kobratu beharreko prestutasun ekarpena osotara 900 eurokoa izanen da epe horretan.

-2020/105 alkate ebazpena onartuz Jaunsaratsko 5. Poligonoko 86. .lursailleko etxebitzaren leihoak aldatzeko obraren behin betiko EIOZren likidazioa 32.45€ eurokoa eta aipatutako obrarako dirulaguntza eskaera 158 eurokoa.

-2020/106 alkate ebazpena onartuz Jaime Lasheras eta bere oinordekoen , 2007-2009 urteen arteko zorra preskribatua dagoela, Nafarroako Tokiko Ogasunen ForueLEgearen 17. Artikuluaren arabera.

-2020/107 alkate ebazpena baimenduz Inma Fernandez Vicuña, Kultur Etxeko gela handia erabiltzea, yoga klaseak egiteko urtariletik aurrera, astelehenetan, 16:00etatik 17:30etara, 2020/63 Foru Aginduaren 15. Artikuluan arautzen den baldintzetan.

-2021/1 alkate ebazpena onartuz Cota Obra eta Proiektuak enpresak aurkeztutako aurrekontua, udal bulegoetan berritze obrak egiteko 12.250,55 eurokoa BEZ kanpo.

- 2021/2 alkate ebazpena onartuz Lakita S.A enpresari bueltatzea, Mendiko Lanak 2015 kanpainiako obrak egikaritzeko jarri zuten txekoa, 528,91 eurokoa.

- 2021/3 alkate ebazpena onartuz Elena Gaskueri egindako eskaeraren arabera, C mailako gehiagarriaren berriskupena eta Talentix enpresak egindako txostenaren arabera, %28 koa izatea, azaroaren 26tik aurrera eta horrela isladatua geratzea, 2021eko plantilla organikoan.

-2021/4 alkate ebazpena onartuz Amaia Legarra Beunzak egindako eskaera, eta ordaindutako baimena ematea, bere alaba den Haizea Fernandez Legarra etxean konfinatua dagoen epean bere zaintza egiteako, 2020/59. Foru Aginduaren 6. Artikulua jarraituz.

- 2021/5 alkate ebazpena onartuz baimena ematea Iker Isiegas eta Maitane Bandresi Aizarotzko Igoabide 5 behea D helbidean dagoen etxebizitzan komuna eta sukaldea berritzeko eta leihoak aldatzeko eta aurrekontua 12.868 eurokoa da .

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain harte onartutako ebazpenak.

### **3.- Berueteko 11. Poligonoko 504. Lursailean iharduera baimena txerri ustiapena jartzeko.**

Idazkariak azaltzen du aipatutako lursailean dagoen abeltegian txerri ustiapena jartzeko proiektua 2019ko uztailean aurkeztu zuen sustatzaileak, iharduera baimentzeko prozedura 2006/93 Foru Dekretuaren 4C gehigarriaren arabera egin zen, NAON argitaratu iragarkia eta ondoko lursaileko jabeei eta kontzejuari jakinaraziz. Gainera ere Lurralde eta Paisai Atalera bidali zen baiezkotxostena egin zezaten, lursailak urbanizagabeko erabilera duelako. Alegazioak jartzeko epean kontzejuak eta bizilagun batek alegazioak jarri zituzten.

Aipatutako NGko txostena ezezkoa izan zen eta hortaz aurkeztutako alegazioak ez ziren aztertu.

Ondoren proiektuaren sustatzaileak NGko ezezko txostenaren funtsa justifikatzeko dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen, hots aipatutako lursailean zegoen abere ustiapenaren baja eta hortaz, 2020ko ekainean NGko baiezkotxostena iritsi zen. Baiezkotxosten honetan iharduera baimena baimentzen zen, baldintza batzuetan oinarrituz.

Hau ikusita 2020ko uztaileko batzarrean, udal arkitektoaren txostenean oinarrituz ez ziren onartu proiektuaren kontra jarritako alegazioak baina baldintza bezala jartzen zitzaien sustatzaileari gune publikoan jarri behar duela ur sarea mozteko giltza bat horrela ur gutxi dagoenean uraren eskumena duen kontzejuak giltza hori itxi ahal du, lehenetasuna, biztanleen kontsumorako urak duelako.

Erabaki hau NGra bidali zen beraiek kontutan hartu zezaten baiezkotxostena moldatzeko, txosten hau iristen ez zenez kontsulta egin da eta NGak adierazi du berain txostena bere horretan uzten dutela eta baimena emateko ez dutela oztoporik ikusten baiezkotxostenean zehazten diren baldintzekin eta kontzejuaren eskumena ura denez udalak eskatu dion baldintzarekin, hots ur azpiegituran giltza jartzea.

2006/93 Foru Dekretuaren 71. Artikuluan zehazten da tramitazioaren nondik norakoa "Kontuan hartuz Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eginiko ingurumenaren gaineko txostena eta, halakorik bada, hirigintzaren gainekoa, alkateak lizentzia emateko edo ukatzeko ebazpena emanen du eta horrela jakinaraziko lau hilabeteko epean, gehienez ere, eskaera dokumentazio osoarekin aurkezten denetik aitzina.

Lizentzia eman izanaren berri emanen zaie interesatuei, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari eta jendaurreko epean alegazioak jarri dituztenei. Gainera, lizentzia-ematea Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da."

Hortaz eta 2006/93 Foru Dekretuaren 71. Artikuluan zehazten dena jarraituz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez.

**-Onartzea Jaucha S.L. enpresak Berueteko 11. Poligonoko 504. Lursailean sustatu duen txerri ustiapenerako iharduera baimena, NGko 2020/133E ebazpena bidez egindako baiezko txostenean oinarrituz, aipatutako ebazpenean zehazten diren baldintzetan.**

**-Erabaki hau jakinarazi sustatzaileari, Berueteko kontzejuari eta alegazioa jarri zutenei.**

**-Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.**

#### **4.- Mozioak.**

Ez dago moziarik.

#### **5- Batzordeen informazioa.**

##### **Gizarte Batzordea. M<sup>a</sup> Mar Ansorenak ematen du informazioa.**

Urriaren 15an landa eremuko emakumeen eguna ospatu zen eta nekazaritzarekin lotura duten emakumeei opari bat egitea adostu zen batzordea eta opari hau Olentzero egunean banatu zitzaien.

##### **Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

Lehen sektoreko bilera egin da dinamizatzailearekin, bertan 3 gai jorratu dira, baserritarren elkarte, Mimukai proiektua eta azoken antolaketa.

Baserritarren elkartearekin lotuta aipatu da ari direla forma ematen, estatutoak lantzen, lan ildoak finkatzen eta abar...

Bestetik Mimukai proiektuaren aurkezpena izan zen Leitzan. Proiektuaren oinarria Leitzan dagoen eraikin bat egokitzea da bertan zonaldeko ekoizleak lan egin ahal izateko, aholkularitza zerbitzua jasotzeko eta abar... bi gune izango ditu eraikinak, lehenengoan "cooworking" gune izango da eta bigarrenean ekoizpena edo ekoizpenarekin lotutako beste arloak (etiketak egin, promozioa...) burutuko dira.

Bukatzeko azoken gaia aztertu zen eta berriro azoka ibiltaria martxan jartzea adostu zen, hilabete behin egiteko txandakatuz. Basaburuan ekaina aldera egingo da.

##### **Hezkuntza Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa.**

Eskolako patioko obrak aste batzuk atzeratuko dira.

##### **Kontzejuan Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

Metro baserri proiektuaren berri eman zaie alkateei, honekin batera bidali zaizkie herri bakoitzeko planoak beraiek zuzentzeko bertan dituzten baserri bizitzen izenak eta horrekin ondoren Tracasa enpresak identifikazio bat emango die. Identifikazio honen bidez larrialdi zerbitzuak errazago kokatuko dituzte eraikinak larrialdi egoera batean.

## **6- Informazio orokorra.**

-Osasun Departamentua 2020ko osasun programen dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren 2509 euroko ordainketa onartzen dute 2020/1059 ebazpen bidez.

## **7. Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:00 ak direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.